



DANI BLANCO

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA ♦

Hollande eta Euro-karta

FRANTZIAKO PRESIDENTEAK hizkuntza gutxituen aldeko Euro-karta berresteko engaiamendua errepikatu berri du, horretarako Frantziako Konstituzioa aldatzeko lege bat iragarritz. Arduradun politiko batzuk poztu badira ere, euskaltzaleen eta oro har lurralde hizkuntzen aldeko herri mugimenduen artean kezka eta zalantzak dira nagusi.

1992an onartu zen Europako Kontseiluko karta hori 1999an izenpetu zuen frantses gobernu sozialistak. Haatik, horren berrespena blokeatu izan zen, Konstituzioaren 2. artikulua argudiatuz: Errepublikako hizkuntza frantsesa da, hots, Errepublikaren batasuna zalantzan ematen zuelakoan. Geroztik, lurralde hizkuntzak defendatzen dituzten herri mugimenduek hamaika mobilizazio eta ekimen bururatu dituzte Euro-karta berretsia izan dadin. Lobby horren presiopean tendentzia guztietako buruzagi politiko gorenak alde agertu dira, sozialistak besteak beste. Konstituzioaren traba gaindiezina ontzat eman ez, Euro-kartaren truke hizkuntza lege bat hitzeman dute, Sarkozy horien artean. Alta, 2015ean, ez bata ez bestea ez dira oraindik gauzatuak. Konstituzio aldaketa prozedura pisua da: Gobernuak Konstituzio lege proiektu bat egin behar du. Nazio Biltzarrak eta Sena-

tuak (eskuinaren esku gaur egun) termino berdinetan bozkatu behar dute. Ondotik bi asanbleak elkarturik, Kongresua bildu behar da eta Konstituzio aldaketa gehiengo kualifikatu batek onartu behar du (5etarik 3). Hauteskunde Presidentzialak izan baino urte eta erdi lehenago oposizioari jarritako zepo itxura du horrek:

Hauteskunde Presidentzialak izan baino urte eta erdi lehenago oposizioari jarritako zepo itxura du horrek: edo onartzen du eta Hollanden promesen bilana hobetzen du edo blokeatzen du eta aurpegia zuritzen dio presidenteari

edo onartzen du eta Hollanden promesen bilana hobetzen du, edo blokeatzen du eta aurpegia zuritzen dio presidenteari.

Zalantzak aparte, kezka ere badago. Alabaina, nehork ez du ahantzi 2014ko urtarrilean, Hollanderen utzikeria ikusirik, diputatu sozialista batzuek Euro-karta berresteko lege proposamena aurkeztu eta gehiengo zabala lortzeko ondoko esaldia bozkatu zutela: “Frantsesaren erabilera zerbitzu publikoa betetzen duten pertsona pribatuei inposatua zaie,

baita herritar guztiei administrazio eta zerbitzu publikoekiko harremanetan ere”. 1992tik lurralde hizkuntzen garapenaren kontra Konstituzioaren 2. artikulua etengabe nola erabilia izan den ikusirik, ez da azitia izan behar esaldi hori gure hizkuntza bizitza publikotik baztertzeko baliatua izanen dela aurreikusteko. Euro-karta baldintza horietan izenpeturik, benetako atzerapena litzateke. ■

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Aviron

TENPERATURA hozka gorenera hupatu zen BAB aldean duela aste pare bat. Alabaina, Aviron Bayonnais eta Biarritz Olympique rugby taldeen ezkontza egiaztatzeko ordua etorri zela erran zuten presidenteek: diru gehiago, indar gehiago, irabazi gehiago. Eta marrubia zut: Baionak zurgatuko zituen Miarritzek, handinahiz, sorturiko zorrak.

Egoera idealari itzal egin zieten ordea partzuer edo *socios* delakoen aburuek: hiri bietako oinarrizko sostengatzaileek ez zuten horrelako fusiorik begi onez ikusten. Baionan, milako batek manifestatu zuen Jean-René Etxegarai auzapezaren leiho

pean eta Jaun Merak zortzi egun eskatu zituen sakon hausnartzeko. Auzia trenkatzeko zaila zen. Bil Ta Garbikoek Hazketa-ko deskargaren urtebeteko luzamenaren erabakia errazago hartu zuketean.

Ustezko kirola eta balizko sos aipamenak saihestuz, istorio horretan gauza bat geratzen da argi, gainera eztabaidari kutsu unibertsala ematen diona: arduradunek eta sponsorrek ez dute jendearen iritziaz axola zipitzik, benetako demokrazia ukamenaren adibidea hedatzen zaigula egunkarietako lehen orrialdeetan.

Horretan datza larritasuna! ■